


1. SUBSTANTZIA KIMIKOAK ETA AGREGAZIO EGOERAK

Materiaren agregazio egoerak

- **Egoera solidoa:**
 - Forma eta bolumen konstantea.
 - Oso indar handia deformatzeko edo apurtzeko.
- **Egoera likidoa:**
 - Bolumen konstantea eta ontziaren formara egokitzeko ahalmena.
 - Ia konprimaezina.
- **Egoera gaseoso:**
 - Forma eta bolumen aldakorra.
 - Erraz konprimitu eta heda daiteke.

	Solidoak	Likidoak	Gasak
Forma	Konstantea	Aldakorra, ontziarena hartzen dute	
Bolumena	Konstantea, konprimaezina		Aldakorra, ahalik eta espazio gehien betetzen dute, eta erraz konprimitzen dira.
Dentsitatea	Altua		Baxua
Jariakortasuna	Behaezina	Biskositatearen araberakoa	Oso jariakorrak



Materiaren eredu zinetiko molekularra

Teoria zinetiko molekularra bi printzipiotan oinarritzen da:


- Substantzia baten agregazio-egoera kohesioaren araberakoa da.
 - **Kohesioa:** egitura-unitateen (atomoak, molekulak edo ioiak) artean dagoen elkartze-intentsitatea. Kohesioa oso ahula izan daiteke (gasak), maila ertainekoa (likidoak) edo sendoa (solidoak).

- Kohesioa aldatzen bada, agregazio-egoera ere aldatzen da.

Aldaketaren eragile nagusia materiaren agitazio termikoa eta presioa da.

Temperatura \uparrow agitazio termikoa \uparrow Agitazio termikoa \uparrow kohesioa \downarrow	Kohesioa \uparrow \rightarrow aldaketa erregresiboa Kohesioa \uparrow \rightarrow aldaketa progresiboa
Presioa \uparrow kohesioa \uparrow	

- **Egoera solidoa:**
 - Partikulek bibratzen dute, baina ez dira tokiz aldatzen. Partikulek sareak sortzen dituzte, lotura sendoen bidez. Egitura zurruna eta finkoa.
- **Egoera likidoa:**
 - Partikulek ez dute posizio finkorik, baina bai haien arteko distantzia.
- **Egoera gaseoso:**
 - Partikulak oso urrun daude elkarrengandik (beraz, dentsitate txikia) eta aske daude.



Substantzia materialen sailkapena

- **Substantzia puruak**
 - Konposizio finkoa eta propietate konstante eta bereizgarriak dituzte.
 - Ezin dira substantzia bakunagoetan banandu prozesu fisikoen bidez.
 - I. Elementuak: substantzia puruak dira eta ezin dira beste substantzia bakunagoetan deskonposatu.
 - II. Konposatuak: beste substantzia bakunagoetan banandu daitezke prozesu kimikoen bidez.
- **Substantzia puruen nahasteak**
 - Konposizio eta propietate aldakorrak dituzte.
 - Substantzia bakunagoetan banandu daitezke, prozesu fisikoen bidez.
 - I. Homogeneoak: osagaiak ez dira ikusten eta propietate eta konposizio berberak puntu guztietan.
 - II. Heterogeneoak: nahastearen osagaiak ikusi egin daitezke eta propietate eta konposizioa aldatu egiten da puntu batetik bestera.